

XIV Orduak

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info



MENDIZALEEN HITZORDUA ARALARKO PARAJEETAN

TOLOSALDEA-LEITZALDEA 3.000 lagun inguruk hartu dute parte Aralarko Adiskideak elkarteak antolatzen duen XIV Orduko Ibilaldian; lau urtez behin Olinpiar Jokoekin batera izaten den martxaren 14. edizioa da aurtengoa

14 PAUSOREN XUXURLA

XIV orduak » XIV Orduen hamalagarren martxa da gaurkoa. Meza kontu gutxi izango da, baina mendizaleek, lehenaldi hartako poz bera dute.

Gaur, gure inguruan gurekin diren aitona-amonak munduratzten ari zireneko garaian, bazen eskualdean ikasle gazte talde bat; gazte ameslariak eta bizi gogo ikaragarria zutenak. Haien ametsak, Aralar mendiarekin lotuak zeuden, eta mendi honen inguruan, senak emandako eginkizun eta asmo ugari ziren haien bizipoz.

Amets hauek denak aurrera eramaten eta ateratzen jartzen zituzten erabat haien gogo eta nahia. Mendizale porrokatuak, eta Aralar bihotzez eta gogoz maite zutenak. Eta garai haietan, mendi honi egin ahal zitzaion oparirik gozoe-na egin zuten: Igaratzako Aterpetxea eraikitzea.

Gazteak, ametsak eta gogoak
Aurreko mendeko lehen laurden inguruan-edo, Tolosa eta Tolosa inguruko ikasle talde batek, Aralar Adiskideak elkarteak sortzeko erabakia hartu zuen. Gazte hauek, Aralar inguruan ibiltzeko zuten grina, geroz eta handiagoa

zen; Aralar tartean zela, asmo asko sortzen baitzitzaizkien. Garai hartan, ez zuten gaurko mediorik, ordea. Bizkarrean zorroa besterik ez zutela, mendiratzen ziren; eta gaua igarotzeko, oihal bat besterik ez zen denda jartzen zuten, estalki moduan. Garai hartako kontuek zerikusit gutxi zuten gaurkoekin, eta herriak eta mendiak ez zeuden elkarrengandik gaur adina komunikaturik. Ibilbide luze hauek, eta mendian eman beharreko gauak kontuan izanda, Aralarren gozoko izateko modua otu zitzaion gazte talde honi. Horrela, Igaratzan aterpea agiteko ideia izan, eta hasiera batean amets hutsa zen hura, aurrera eramane zuten.

Mugan mikelete etxea
Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru aldundiek, XVIII. mendearen amaieran hasita, euren menpe egongo ziren eta denek antzeko eginkizunak izango zituzten gorputz armatuak eratu zituzten. Gorputz armatu haien egitekoak hauexek ziren: ordena publikoari

eustea eta lurralde administrazio-ko zentzuzko lan egitea.

Bigarren Karlistadaren hasieran, foru gorputz armatuak liberalen gudarosteko talde militar bihurtu ziren. IX. mendearen bukaeratik 1936 arte Gipuzkoako Mikeleteen lanak, ordena publiko alde batera utzi-eta, batez ere administratibo izaten jarraitu zuten.

Nafarroako eta Gipuzkoako mugan, Igaratza, bien arteko pasabidea izanik, mikelete etxea izan dako zegoen. Eta Aralar Adiskideek, hau aprobetxatu nahirik-edo, aterpea egiteko baimena eskatu eta lortu zuten. Aterpetxea egina zegoela, hau izan zen Aralar Adiskideen lehenengo egoitza-edo. Hemen hasi ziren lehenengo batzarrak egiten. Gaur, oraindik ere, hemen jarraitzen dute elkarte-koek, urtero-urtero bertaraino igo-eta urteko batzarra egiten.

Aterpea 1927an sortu zen, eta handik urte batera, aterpearen inguruan ibili zirenek, bazkide izatera haru eta, 1928an elkarteak sortu zuten.

Aralarko Adiskideen elkarteak
Aterpea sortu eta urte batera sortu zuten elkarteak, 1928an. Lehenengo bazkideak gutxi baziren ere, gutxiar, 100 bazkide izatera iritsi zi-

ren. Hasieran hartan, bi bazkide klase ziren: kotizatzen zutenak (100 lagun) eta ohorezkoak zirenak (44 lagun), 144 lagun guztira. Hasiera hartan, bazkide kopurua gehiegi hazten ari zela eta, bazkide kopurua mugatzea erabaki zuten, eta gaur, 123 bazkideetara mugatua dago kopuru hori. Denek ordaintzen dute, eta bazkide izan nahi duenak, herentzian jaso edota heriotza baten ondoren, libre geraturiko lekua bete ahal du.

Igaratzako jai-etxea
Aralarko Adiskideen sorreraren ondoren, aterpearekin batera, honen ondoan, beste hiru etxe-edo eraikiko zituztela erabaki zuten: kapera, jangela eta borda. Lehenik, 1946an, kapera txiki bat eraiki zen; urtebete beranduago, kapera hau handitu eta ermita bihurtu zen. 1949an jangelarekin bukatu zuten. Jangela hau, bazkide ez zen edonork bertan gaua igarotzeko tokia zen. Hau guztiaren inguruan sortzen zen giroarengatik edo, mendizaleek eta artzainek, berehalata baita zuten Igaratzako jai-etxe izenarekin. Horretara, igandean eta jaiegunetan, inguruan, beren artaldeekin zeuden artzainak, jai-etxera inguratzen ziren meza ospakizunetara.

«Montañeros vetustos»
Aralarko adiskideak, izenak berak adierazten duen moduan, Aralar mendiei oso lotuak zeuden. Baina Aralarrean arduratzeaz gain, inguruko beste mendiak kotuan hartu nahi zituzten baita, bestelako zeregina antolatu ere. Honen ondorioz, «Montañeros vetustos» izenarekin ezaguna zen beste talde bat sortu zen. Bertako kide gehienak, besterik bazen ere, Aralar Adiskideen taldekoak ziren. Talde berri hau Pirinioetan, Europako Mendietan... Aralarretik kanpo, makina bat ekintza antolatu zituzten. Geroxeago, Tolosako eski alpino elkarteak sortu zuten; baita, Tolosako Berazubi kirol estadioa eraikitzen parte hartu ere.

Aralar, artzainen kabi
Amezketako eta Ordiziako Herrien Batasunek, antzinatik baliatu zuten Aralar eta Aralarako inguruak baso ustiapenerako eta artzantzarako. 1199an, Gipuzkoa Gaztelako Koroaren parte izatera pasa zenenan, mendi eta inguru hauek ere, Gaztelako Erreinuarenak izatera igaro ziren, 1400nera arte. Garai honetan, Gaztelako Enrike IIIak, Amezketako Juan Jau-naren esku utzi zituen lurrak. Baina Amezketako eta Ordiziako He-

Kutxa zaharreko hautsak iruditan

ARALARKO ADISKIDEAK » Mende hasieran, mendizale gazteek, bizkarrean zutena eta oihal xume bat besterik ez zuten gaua igarotzeko. Artzainak, berriz, ardia eta bakar-dadea zituen lagun. Autoak ere egokitu egin behar ziren mendirako. Kontu horiek atzean geratu ziren, Igaratzako aterpetxearen lehen harria jartzearekin batera. Hasieran aterpetxe zena, «jai-etxe» bihurtu zen, eta Aralar inguruetako mendizale eta artzainek, aitzakia gutxi behar zuten Igaratzan lagun artera biltzeko. 1925. urtean eginkizun txango hark ere, bila-kaera izan du; gaur egun, emakumezkoak, ibilaldirako izena eman ahal du. HITZA



Gustuko bidean aldaparik ez

Ibarako Udala

Menu bereziak

Ogitartekoak

Plater kombinatuak

Txindoki jatetxea

Tel. 945 80 51 27 945 80 52 27

Orduak: 10:00 - 11:00

rrien Batasuna ez zen konforme; lur haiek beraientzat nahi zituzten. Azkenean, eta 1.400 florinen truke, lurrak eureganatu zituzten. Horrez gero, inguru haiek Gipuzkoako nahiz Nafarroako artzainen kabi izan dira. Horretan ez da inolako zanalzaririk.

XIV orduen 14. ibilaldia

1925ean izan zen lehen ibilaldia, hartatik, kontu franko izan da, eta baita bizitzeko ohiturak aldatu ere. 1925eko ekainaren 6a zen. Goizean goiz jaiki, eta gure 14 mutilak, goizaldeko hiruretako meza entzun zuten Tolosako Santa Maria elizan. Jaieroko ospakizun honen ondoren hartu zuten mendirako bidea. Haien asmoa, lagun artean ibilalditxo egitea zen. Aralarren majo gozatuz, mendian ibiltzea.

Ohitura handia zuten garai hartan batetik bestera oinez ibiltzeko. Tolosatik Bilbora, Estibalizera nahiz Iruñera ibilaldi luzeak egiten zituzten. Haiantzat, noizbehinkako ibilaldi preziatuak eta bereziak ziren haiek. Eta esan nahi da, gaur egun inguru edota herri guztiak ditugula eskura eta ikusgai, baina orduan, ez. Gaur, Igaratzara joan nahi duenak, bide du lehenik kotxez San Migelera igotzea, eta bertatik oinez igaratzara iristea. Baina orain 80 urte, bide hori guztia, oinez egin besterik ez zen; Tolosatik Igaratzarako bidea, esaterako, abentura hutsa zen.

XIV orduen lehenengo aldi hartan, ibilaldia ez zuten gaur egingo

genukeen moduan egin. Bidean gora ari zirela, lasai ederrean paratxo egin, eta guardetxean mahai inguruan eserita bazkaldu zuten. Bazkalondoan, berriz, San Migeletik Igaratzarako bidea egin, eta lege zaharrak zioen moduan, batzuk atsedean hartu zuten. Beste batzuk, beranduago Igaratzan elkartzekotan, Putxerrirako bidea hartu zuten. Bakoitza bere kasara ibili ondoren, behearantz bidean zirela, beste lagun batzuk bidera atera zitzaizkien, eta Amezketan aflu. Afari legea ere, lasai eserita egin zuten. Azkenean, gaueko haizak ongi pasata iritsi ziren berriro ere Tolosara. Beste erabatean egiten zituzten gauzak. Gaur, pentseazina da txango edota ibilaldi bat modu horretan antolatzea. Baita, lagun talde bati hori egin behar duela bururaztea, baina ez besterik. Kontuak, beraz, galanki aldatu dira.

Izan zen beste urteetan saiorik ere. Hurrengo urtean 13 lagun joan ziren aurreko urteko bide bera egiteko asmoz. Baita egin ere. Hurrengo urteetan, ez zen, ordea ibilaldirik izan. Handik 17 urtera ekin zioten berriro ere Aralarren ibilaldi hura egiteari. Orduan, partaide kopurua asko aldatu zen, 111 lagun abiatu ziren. Hortik aurrera kopurua hazten joan da, eta gaurko 3.000 lagun inguru izatea espero da Aralar inguruetan. Meza kontu gutxi izango da igandean, baina hasiera hartako poz eta ilusio berarekin abiatuko dira mendizaleak.

Mendizaleak ez du nahasbiderik Igaratzako bidegurutzetik aurrera

Igaratza » Bere garaian, Aralarko Adiskideek bidegurutzetik jarritako harrizko seinaleak bidea agertzen dio mendizaleari.



Baterako eta besterako bideak elkartzen diren parajean jarria dago. HITZA

Aralarko adiskideek 80. urteurrena ospatzen dutela eta, oraindik ezer egiteko ezer prestatu ez badute ere, 75 urte bete zituenean, ospakizun ekintzen prestaketan, Igaratzako orientazio mahaiaz gogoratu, eta hau berriro zuten.

Ez atzo ez gaur, nahasterik ez

Orain 70 urte inguru gurutze forma osatzen zuten harrizko jarri zituzten Igaratzako bidegurutzetan. Harri hauen lana, Minetarako, Igaratzarako, ... bidea erakustea zen. Beranduago, bertan zeuden harriak txukundu eta hasieran eginko lana berriro eta osatu-edo egin zen. Orain 5 urte, berriz, zegoen ereduari jarraiturik, zaharberritzeko erabakia hartu zuten Aralarko Adiskideek. Txukuntze lan horren ardura Mikel Lizarraga leitzarrak hartu zuten; eredu mantendu bazuen ere, harria zeramikarengatik ordezkatu zuten. Hasiarako harria aterpean dute orain zintzilik.



Orientazio mahaiairen txukunketa Mikel Lizarraga leitzarrak egin zuen. RICHARD



Mendiaz gozatzeko eta Aralar bizitzeko modua aldatu da azken hamarkada hauetan. Hala ere, mendian ibiltzeko grina bizi-bizi da euskaldunen artean. Horren erakusgarri da Aralar inguruetan 1925etik ospatzen den XIV Orduko Ibilaldia. Urtetik urtera partaide kopuruak gora egin du, eta ez dirudi hurrengo ibilaldietan mendizaleen parte hartzeko gogoak atzera egingo duenik.

«Mendian lasai ibili behar da, gu beti presaka ibili gara, gaurko marka bihar hobetu nahian»

MANUEL ETA ENRIKE GOIKOETXEAUNDIA › Zerrategiko nagusiak

Lizartza › Inguruko martxa gehienak eginak dituzte, eta gaur, mendizale iaio beteranoenek ere ez dute zitara huts egingo.

Mendiari lotua bizi omen da euskalduna, eta ez da arrazoi faltarik. Baseriari edota basogintzari lotuak bizi izan direlako batzuk, mendizale porrokatuak ziren kaletarrak zirelako besteak; baina mendia maiteatutakoak denak. Bizia mendian eman dute Manuel (Lizartza, 1938) eta Enrike (Lizartza, 1939) Goikoetxeaundia anaiek ere, eta XIV orduetan izango dira mendizale beteranoen artean.

Noiztik mendian?

Gu ibiltzen gara asko. Orain ez gara lehen adina ibiltzen, baina, oraindik ere, asko. Euskal Herriko mendi guztietan ibiliak gara, eta baita Errioxa eta Logroño aldean ere. Esaterako, Errioxan, urtero izaten diren, Ezkarai mendietako martxa guztiak egin ditugu, uste dut, ha-



Manuel eta Enrike Goikoetxeaundia, ezkerretik hasita bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren. A. OTERMIN

mabi martxa direla. Aurten hamaugarren aldiz egin ditugu. Zorte handia dugu horretan. Eta hemen ere, gure denboran, ibilaldi denetan ibiliak gara. Hiru Handiak (Gorbeia, Anboto eta Aizkorri) ere bitan eginak ditugu. XIV orduak ere bostpasei aldiz. Gainera, lehenengo urtean egin ez banuen ere, maiatzaren lehenean edota pazko bigarrean, urtero-urtero egin dugu XIV Orduetako ibilbide bera.

Eta oso ongi eta gustura beti. Aurten ez, aurten Berastegikoa bakarrik egin dugu.

Umetan ere mendialdera joaten al zineten?

Ez, umetan ez zegoen horrelakorik egiterik. Umetan, segan, belarrean, garotan, egurra mozten, ... nahiko lan izaten genuen. Mendian txangoak egiteko kontuak, gure industria sortu ondorenekoak dira. Gazte ginela (20-30 urtere-

kin) ez zegoen mendira joaterik, nahi izanda ere, utzi ez.

XIV orduak prestatzeko asmoarekin, zer egin duzue?

Berastegiko martxa egin genuen. Hortik aurrera, nire alaba gurekin ateratzekoa da-eta, hari lagunduz, gure kasa ibili gara. Gorrititik bueltan behin, eta beste behin Tolosatik atera, San Migeleraingo joan eta Amezketarako bidea egin genuen. Amezketan ginela, taxia hartu, eta etxera.

Menditik zer da gehien gustatzen zaizuena?

Menditik, dena. Gainera, beti menditik bizi izan gara gu, eta hola-hola, Euska Herrian ezagutzen ez dugun mendirik, gutxi izango da. Pentsa, orain ere, egurretan, Aralarren, Ataunen, Igaratzen eta Urbasan ari gara. Nahi ez dugula ere, beti mendian; ez dugu kalean ibiltzerik. Esaterako, gaur Ataunera joan behar dut Infanta-doko Dukera. Ataundik goiko gainera zazpi bat kilometro dira, eta ez dut kotxerik erabiltzen; dena, aldapan gora, oinez egingo dut.

Eta gustatzen ez zaizun zer ikusten duzu mendian?

Noiz edo noiz tristezia ederra jaso dut mendian. Lehengo udan, Aizkorri goi eta handik aurrera nindola, bertan zeuden altuerak txikituta eta botata zeuden. Kontu hori mendi batean baino gehiagotan ikus daiteke. Eta niri, ikaragarri gustatzen zait, mendi batera igo ondoren, bertan, mendiaren altuerara eta denborak orri batean biltzea. Eta nik uste, mendian txikizio hori

Gure lanbidea dela eta, nahi ez dugula ere, beti mendian ibili gara; ez dugu kalean ibiltzerik

egiten duena, ez dela ongi ari. Gauzak txikitzen erraza da, baina ohartu behar gara, mendiak markatzea asko kostatuko lana dela.

Mendizale moduan egin duzuen ezer aldatuko zenukete?

Bai. Izan ere, ez dugu askotan, mendian ibiltzen jakin. Mendian, lasai-lasai ibili beharrekoa da; eta gu beti, presaka eta korrika ibili izan gara: gaurko marka bihar hobetu beharrean. Eta hori ez da mendian ibiltzea. Nire semeak ere afizio horixe du, gaur marka bat egin, eta bihar, berriz, aurretik egindako hura hobetzen ibiltzen da.

«Lagunartean, tonto-tontoan botatako ideia formalduta, eta XIV Orduak egingo ditut»

OLATZ ETXEBERRIA › Komunikabideetako ekoizlea

Berastegi › Beterano diren mendizaleekin batera, irteeran izango dira orain gutxi mendiaz gozatzeko hasi direnak ere.

Mendizale askorentzat egun handia da, oso ongi prestatuak joango dira asko, gutxi eago besteak, baina egun polita igarotzeko esperantzarekin guztiak. Olatz Etxeberriarentzat (Berastegi, 1985) aurtengo ibilaldia izango da lehenengoa. Mendian ibiltzen hasi berria da, eta ikara handiz doa ibilaldira, baina beste askoren moduan, gehiagi sufritu gabe egun polita igarotzeko esperantzarekin.

Mendirako zaletasunik?

Lehenengo urteko irailean hasi nintzen mendian ibilalditxo batzuk egiten, eta orain artean, ahal dudan guztietan, mendirako bidea hartu dut. Mendira joateko tarterik handiena, asteburuetan izaten dut, eta mendian ibiltzen hasi nintzenetik,

astebururo saiatzen naiz mendi buelta egiten.

Zein ingurutan ibiltzen zara?

Hemen, Berastegi inguruan gehienbat. Hala ere, tarteka-tarteka, beste inguruetara ere mugitzen naiz; baina batik bat, dagoeneko hemengo inguruetan egina dudan ibilbideetan ibiltzen naiz.

Zer nahiago duzu, mendian bakarrik, ala konpainian?

Nahiago lagun baten konpainian. Orain ere, lagun talde txiki bat elkarrekin gara mendian ibiltzeko. Gehienetan mendi bueltak gure kaxa antolatzen baditugu ere, ibilaldietan ateratzen ere hasiak gara. Aurten Villabonako ibilaldia egin genuen lehenengo, eta Berastegikoa, ondoren.

Nondik-nora sortu zen XIV orduak egiteko ideia?

Tonto-tontoan hasi ginen lagun talde txiki bat XIV orduetako ibilaldia egin behar genuela esaten. Hasiaren, kontua ez genuen oso serio hartu, baina pixkana seriotasun gutxiako ideia hura, ideia formale-



A. OTERMIN

an bihurtu zen, eta Berastegiko ibilaldia egin genuenean, honi nonbait gustua hartu-eta, igandean, ibilaldian aterako gara.

Ibilaldiko zerk tentatzen zaitu?

Erronka berri moduan hartu dut. Ia gustua hartu diot mendian ibiltzeari, eta XIV orduak egitea desafio handia izango da niretzat. Bukatzera iritsiko ote naizen ...

Nola doaz egun horretarako prestataketak?

Orain arte, ia astebururo joan naiz mendira; baina egia da Aste Santu ondorengo honetan, lasaieago ibili naizela.

Norekin egingo duzu ibilaldia?

Hiru laguneko taldea joango gara elkarrekin. Beste bi lagunak ere aurten hasi dira mendian, eta elka-

rrekin egin ditugu ere, orain arteko ibilaldiak.

Mendirako txorakorik politenak?

Berastegi inguruak zalantzarik gabe. Oraindik ez naiz mendian asko ibili, eta beste bazterrik ere ikusiko nuke. Nire burua mendirako gehiago prestatuz gero, Pirineo aldera joango nintzateke gustura.

Zer espero duzu XIV orduetako ibilaldian aurkitzea?

Egia esan, ikara handiarekin noa bertara. Hanketatik nahiko gaizki

Aralarko Adiskideek ateratako liburuan, ibilbidea prestatzeko informazio asko dago

ibiltzen naiz. Oso azkar ateratzen zazikit babak, eta ez dakit egun horretan nola izango naizen. Gainera, ibilbidea luzea da, eta horrek ere errespetu handia ematen dit.

Aholkurik eskatu edo jaso duzu?

Askorekin hitz egin dut, eta denetarik esan didate. Batzuk, ibilaldi gogorra dela, eta ez dudalabukaturiko. Beste batzuk, kontrakoak, asteburuetan mendian ibilita nahikoa izango dudala. Dena den, ahalik eta hobekien prestatzea da nire asmoa. Aralarko Adiskideak ateratako liburua bat irakurtzen ari naiz, XIV orduen inguruko eta eta bertatik informazio asko jaso dut.